

• P E R T S O N A I A •

Imanol Irigoien



«Gainerako arte guztiek arnasten duten airea da poesia»

Poeta plazaratu zen lehenengo. Argiaren barne-distantziak argitaratu zuen 1989an. Poema bilduma hark, ordea, margoa zuen ezaugarri. Izan ere, margolaria da Imanol Irigoien, poeta baino lehenago. Lanbidea, berriz, enpresa mundua izan du. Horixe koktela. Edan edo klik.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Ekonomia eta Enpresa Ikasketak egin, baina margolaria zara izatez.

Galanta bota didazu oraintxe! Aita medikua genuen Altzan. Gurean, anaia bikiak eta biok batxilergoa ikasteko modua izan genuen, Donostian, Jesusen Bihotzean. Lau urte han, oinarrizko batxilergoa bukatu arte, eta Donostiako apaiztegia sartu nintzen. Han bost urte egin eta Filosofiako bigarren mailan nintzela irten nintzen. Gai humanistikoan aldera jo nuen, eta Letrak adarretik jo nuen, Zientziak gabe; unibertsitatera aurreko ikasurtean, hiru besterik ez ginen adar horretan, hirurok ere seminariotik edo nobiziatutik gentozenak. Tartean Iñaki Gabilondo, adibidez. Bestalde, pinturarako afizioa nekarren, txikitandik. Aitari sendagai prospektuak bidaltzen zizkieten, eta haietan arte erreproduktzioak ageri ziren, batean Goia, bestean Kandinski. 12-14 urte nituela ikusi nuen lehenbizi Kandinskiren lan bat. Handik berrogei urtera, hainbat jendek ez zuen haren lanik batere ikusia! Hari begiratu, eta neure artean: “Zer da hau, ordea, zer esan nahi du?”. Eta Picassoren lanak... Zaletasuna! Eta esaterako, Gipuzkoan gutxi izango dira nik beste arte erakusketa ikusi duenik, harrokeriarik gabe diot, ez baitut Guinness liburuan sartu nahi. Ikusi? Baita propio Madrilerako edo Bartzelonara joan ere. Eta Parisera, Bruselara, Veneziaara... erakusketak ikustera, dela Morandi, Magritte, Paul Delvaux, Pietro Longhi, Balthus...

Ikustetik margotzera egin duzu zuk.

Ez nuen nire burua gai ikusten. Nik besteren lanak ikusi, miretsi, bai, baina hortik aurrerakorik ez. Ez nekien pintzela nola hartzen zen ere. Margolanei neure interpretazioa emanaz jarduten nuen, materialak aintzat hartu gabe, ez bainekien ezer teknikari buruz, edo inprimatze moldeaz. Halako batean, umeak ere pixka bat haziak ordurako, hau eta hura ira-

kurtzen hasi nintzen, neure gisa. Kolore primarioak nola nahasten ziren irakurri nuen han, zein ziren osagarriak... Kontu oinarrizkoak, baina zeharo berriak zitzaizkidanak. Horrela hasi nintzen ikasten. Autodidakta direla diote batzuek, eta nik ere esan nezake, behin ere eskolarik jaso ez dudalako, baina autodidaktarik ez dagoela diot nik, beste askorekin batera esan ere, handik edo hemendik elikatzen gara guztiok. Nik ez dut esaten autodidakta naizela, hamaika erakusketa ikusitakoa bainaiz: ikasitakoa, ondorioz. Eta Joan Mari [anaia, idazlea] nirekin eraman ere bai. *Meninak* zaharberritu zituztenean, adibidez, han ginen. Erakusketa zoragarria.

Artea bizi duzu.

Bai, baina garai hartan hemen Ingeniari Tekniko eskola besterik ez nuen. Anaia bikia han hasi zen, eta Ingeniaritza ikasi zuen gero, Joan Marik bezala. Nik Letrak aukeratu nituen, baina halako batean, Letrak ikasitako-

Nortasun agiria

Imanol Irigoien (Altza, Gipuzkoa, 1940) Ekonomia eta Enpresa ikasketak egin, horixe izan du lanbide. Bizibide, berriz, margolaritza. Ez du izan hori bezain gustukorik. Txikitandik zaletu zen, eta diren eta ez diren erakusketa guztiak ikusi ditu, han eta hemen, batera eta bestera bidaiak eginez. Halako batean, margotzen hasi zen bera, eta erakusketak ere eginak ditu. Literatura zaleak dakienez, anaia Joan Mariren liburuen azaletan ageri dira Imanolen margolan asko eta asko. Margolaritzak eragiten zizkion bulkadak ohar egin eta poema liburua osatu zuen 1989an, *Argiaren barne-distantziak*, Lizardi saria jasotako liburua. Kritika saria ere bereganatuko zuen gero.

San Lazaro Geltokia

“Aitaren kontsultan jendea zain. Gripea zenean, ilara luzeak, igandean ogitara baino luzeagoak. Kontsultako horman zintzilik, egutegiak, Suitzako irudiak, mendi ikusgarriak, elurtuak. 1947an zegoen eskasia kontuan harturik, arrazionamendu kartilak ikusitakoa naiz ni txikitan, eta bestalde, Suitzako mendi haien edertasuna ikusgarria zitzaidan, mundu zoragarria! Beste egutegi batean, berriz, Asentzio Martiarenaren lanak, haren kolore gorriak, urdinak... Nik ikusten nituen koloreak askoz argi- ilunagoak ziren! Liluragarria zitzaidan, garai hartan ere. Eta Moneten San Lazaro Geltokia ikusi, trenaren tximiniatik kea zeriola, baina kea urdinez!, bada, mutikoa zen honi modernoa iruditzen zitzaion, nahiz eta kolore festa hura aztertzeko gai ez nintzen. Zoragarria”.

ok ere ESTEn [Enpresa Teknikarien Goi-mailako Eskola] sartzeko aukera genuela esan zuten, eta haraxe zuzendu nituen nire pausok. Anaiak zerabiltzan deribatu eta integralak ikusi, hango matematika hura, eta ESTEra ni. Baina han ere, Estatistika!, On Karlos Santamariak ematen ziguna, eta nahiko lan, baina ikasturterik galdu gabe, gaingitu nuen nolazpait. Gainerakoan, kanpora joan beharra zegoen, eta gu bost ginen familian. Ekonomia eta Enpresa ikasi eta hortxe egin dut lan

berrogei urtean, gehiegi gozatu gabe, nahiz eta saiatu naizen ahal zen ondoen eramaten. Gozaten orain ari naiz, margotzen, jubilatua naizenean! Estudiora etorri, hau irakurri, hura margotu, gozaten.

40 urte behar izan dituzu “armairutik irteteko”, zure baitako margolaria era oso-osoan kanporatzeko?

Bai eta ez. 30 urte nituela hasi nintzen margotzen, eta gozaten. Laster jabetu nintzen. Liburuetatik kopiatzen hasi nintzen, zirriborroak egiten, 1970ean, Oñatin bizi ginela. Ariketak ziren, eskolan diktaketa agintzen zigutenean bezala: “*La... nación... española...*”, eta guk kopiatu. Bada, margotzen hasi nintzenean, berdin, handik eta hemendik kopiatzen hasi nintzen lehenengo, gauza errazak hasieran –nire gustu-gustukoak betiere–, koloreak nahasten gero... Eta egiten nuen lana aztertu, kritikatu...

Norbera da beti kritikaririk handiena?

Dudarik gabe. Nik banekien zer egin nahi nuen, baina prozesu luzea egin ezean ez dago lortzerik. Urteak behar dira. Aitari bidaltzen zizkieten prospektu eta aldizkari haietan adi-



bide mordoa neukan. Literatura ere bazen errebista haietan –azken finean, medikuak humanistak dira–, idazle ezagunen testu eta glosak, izan Tolstoi edo Thomas Mann, eta margolarien gaineko informazioa. Bestalde, gorde egiten nuen dena, gorde eta gorde. Gorde eta ikusi, ikusi eta ikasi, ikusi eta miretsi. Liluratu. Hunkitu. Regoyos ikusi nuenean, esaterako, haren baratze arrunt haietako batek eragin zidan bihotz-zimikoa! Halako baratzerik ez nuen behin ere ikusi, ez naturan, ez margoan. Poliki-poliki neure gustu estetikoan landu nuen, eta banekien, lehenago ala geroago hortik joko nuela, gus-tuko nuen hartatik, alegia.

Hainbeste gauza diferente ikusi eta gero...

Gustua kristalizatu egin ohi da. Esaterako, nahiago dut margolari isila, Edorta Kortadik esan ohi duenez, hau da, Vermeer, Chardin, Giorgio Morandi italiarra, Luis Fernandez –Picassoren oso laguna–... Azken horren erakusketa ikustera propio joan ginen Joan Mari eta biok Madrilera, 1984an. Oso ederra, erakusketa. Espainiarra, Parisen bizi zen. Hango eskolakoa omen. Mantso-mantso margotzen zuen, Bilbora ekarri duten Antonio Lopezek bezala. Liburu batean irakurri nuen lehenbizi Fernandezen berri, 1976an. Margolanak ere ikusi liburuan, zuri-beltzean, eta gustatu: burezurra, katilua frutaz betea... Orduan ez zen Internetik, informazioa ez zen orain bezain eskura, eta, horretan, non jakiten dudan Madril-en erakusketa zuela, lehenengoa Espainian. Eta haraxe. Eta, esaterako, nire poema liburuan ageri da Luis Fernandez, eta Vermeer, eta Cristino de Vera... Gustatzen zaizkidan margolariak, apaingarri handirik erabiltzen ez dutenak, esentzialak –nahi baduzu–, isilik, zaratotsik gabe asko adierazteko gai direnak. Beste bat, asko gustatzen zaidana, Akerreta nafarra. Poema bat ere idatzi nuen, hura gogoan, *Zurgai* aldizkarian. Beste bat, Gonzalo Txillida, lan zoragarriak ditu.

Horiek zure iturriak, isilak.

Bai, bada. Baita pintura metafisikotik datozenak ere. Eta ni ere horien artean jarri ninduen



AZKEN HITZA

Zelatan

“Badira koadroak zeinetan ezer ez egon arren, oro dagoen”.
Camille Corot

Entzun dut, ateak zabalik,
oihalaren zuria;
otalorearen apainduraren
argi-oilarraren mintzoa.

Badakusat, baitere,
gerizaren espaloietan
arrats-orenen zain
mendietako oihartzuna,
uhin-aleazioz aireztatua,
bakardade lehorrean ugerlari.

Nigarraren odolak hartuta,
goroldio hezetasuna gogoan,
haranetan urregorri den oihartzuna,
birakor, kolpeka,
jauzi basatien pausoen
arraigabeko argizuloaren zelatan.

Kortadik, eta ez nuke ezetz esango. Baina ez eskatu niri neure burua, neure lana definitzea.

Usteko nuen artistek aro diferentetarik izaten dituztela beraien bidean...

Beti ari gara ikasten, beti gara hasiberriak. Horretan daukat nire burua.

Margotzen, isiletakoa. Berriketan, berritsu, ezin atertu.

Hala esaten dute, bai. “Ez haiz isiltzen!”. Bestalde, lotsatia naiz.

Lotsak jartzen zaitu etengabeko berriketan.

Baliteke. Jendaurrean urduri jartzen naiz, oso. Lotsa. Erakusketak eginak ditut, eta nahiko lan. Esate baterako, On Manuel Lekuonak idatzi zuen nire erakusketa baten atarikoan. Gure etxetik pasatu zen, nire margolanak ikusi, eta: “Aizu, erakutsi behar dituzu zure lanak”. Eta erakusketa egin nuen 1981ean Oiartzunen. Harrezkero, berari joaten nintzaion noizbehinka, berriketan jarduten genuen... Nire lanen bat ikusi eta: “Aizu, urdin horiek nola sortu dituzu?”, galdetzen zidan. “Eta itzal horiek?”. Horrela. Beste behin, organo emanaldia Oiartzunen, larunbat batez. Lau oilo joaten ginen, baina hantxe gu. On Manuel nire aldamenean. Ni haren aldamenean, hobeto esanda. Elizatik irten eta, ilunabarrari begira, esan zidan: “Zuk badakizu inpresionistek alde batera makurtuta, buruz behera, oker, behetik gora begiratzen zutela zerura?”. Zeruak erakusten dituen nabardurak hobeto ikusten omen dira. Nonbait. Ez nuen inoiz halakorik entzun, ez irakurri. Ni, harrিতuta, On Manueli entzuten. Badut berak utzitako oroigarri bat, xume-xumea, ondo gordea. Eta Joan Mari Lekuonarekin berdin, harreman gozoa izan nuen. Badut osaba-ilobak gogoan hartzeko asmoa. Ea datorren urtean...

Margotzeko zaletasun handia txikitandik, eta margotu ere duzu. Idatzi ere bai, poesia liburu argitaratu zenuen 1989an. Margolari isila, poeta ere isila?

Eta, aldi berean, hiztuna! Kar, kar, kar. Poesia ere asko irakurritakoa naiz. Orain gehiago ari

naiz nobelatik baina. Autobusean hara eta hona, bukatu berri dut *Las inquietudes de Shanti Andia*, Barojarena. G. Bufalinoren *Calendas Griegas* oraintsu dut irakurria. Jubilatuz gero...

1989an ez zinen erretiratua...

Ez, orduan ez. Poesia irakurtzen nuen, ohar-
rrak hartzen nituen koaderno txikian. Opor-
rretan, San Pedro Regaladora joaten ginen,
frantziskotarren etxera. Garai hartan hango
zuzendari zena oraintsu hila da, Ramon Iriz-
zar, Biblia euskaratzen lan handia eginda-
koa. Anaia eta biok joan eta, halako batean,
esan ere egin nion Joan Mariri, nola neuz-
kan oharrak bilduta, eta idaztera nindoala.
Eta idatzi nuen. Ez zitzaidan iruditu behar
bezain landua zegoenik, baina ahalegin hark
bidea ireki zidan. Eta poesia irakurtzen segi
betiere. Horretan, beste hamabost egun
hartu nituen opor, eta aurretik idatzitako
hura biribiltzeko asmoa hartu nuen. Anaiari
erakutsi, hau orraztu, hura zuzendu... Eta
esan zidan: "Hi, hor baduk sariketa bat.
Zertan ez duk bidaltzen?". Eta lana aurkez-
tu, eta saria jaso! Ez nuen berehala pentsa-
tuko. Argitaratu zen, eta aurrera. Segitzen
dut idazten, baina gordeta dauzkat. Aforis-
mo mordoxka daukat idatzia, gregeria

Artea gustatu

"Goizeko lauretan
irten Bartzelonara,
erakusketa ikusi (X.
Valls-ena), bazkaldu
eta buelta etxera,
hainbat ordu autoan.
Behin, bueltan, diru-
zorroa ahaztu ere bai
nik restop horietako
batean. Bidea dese-
gin behar, berandu-
tu, eta non edo non
inguruan geratu
behar lotan. Afizioa.
Madrilera berriz,
hilean behin-edo
joan beharra izaten
nuen, lanak horretar-
ratuta, eta beti har-
tuko nuen tartea
bateko galeriara edo
besteko museora
joateko, artea ikus-
tera. Gustatu!".

antzekoak... Entresaka egin beharko nuke, baina liburua osatzeko lain, seguru. Intere-
sik ez, ordea, ezer argitaratzeko, eta presarik
ere ez.

Mihisetik paperera, margolanetik poemara.

Bilakaera naturala izan zen margolaritzatik
poesiara egin nuena. Mundu plastikoan
argiak eta itzalak erabiltzen ditut, margo eta
koloreak, eta poesia liburu hartan ere Mon-
drian, De Chirico, Ormaolea eta beste sartu
nituen. Nola esango nuke... Ez noa esatera
nire teoria dela, "Imanol Irigoien teoria",
akabo, bada! Nola esan... Iruditzen zait arte
guztietan dagoela poesia, poesiarik gabe ez
dagoela arterik, ez margolaritzarik, ez
antzerkirik, ez arkitekturarik, ez literaturarik,
ez dantzarik. Poesiarik gabe ez dago ezer.
Poesiak gainerako arte guztiak zipriztintzen
ditu, besarkatzen eta uztartzen ditu. Artelan
batek, lan plastiko batek, nik definitzen ez
dakidan poesia hori ez badu -misterioa, edo
dena delakoa-, iruditzen zait hankamotz
geratzen dela, herren egiten duela. Poesia,
niretzat, ez da literaturaren adar
bat, gainerako arte guztiak
arnasten duten airea baizik. Zer-
bait inplizitua. Eta ez dakit
zuzen ari naizen ere... ■



EGIZUHARPIDETZA
EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimein zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELORAREN
HERRAN JAMI

